

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuak modu egokian funtziona dezan bi elementu dira ezinbestekoak: ikasketa eskaintza eta plataformaren funtzionaltasuna. Eskainiko dugun ikasketa planak zehatza behar du izan, baita eraginkorra ere eta bereziki erabilgarria. Gure ikasleek haien ezagutza maila handitzen doala sumatu behar dute eta ikasten ari diren hori benetan erabilgarria dela. Halaber, haiek izango dituzten klase praktikoetan, komunikatzeko gai direla eta horretarako material egokia eta praktikoa jaso dutela sentitu. Bestalde plataformaren funtzionaltasuna dago. Online izango den azpiegitura diseinatzerako orduan, intuizioa eta erraztasuna hartu behar ditugu aintzat. Premiazkoa da erabiltzailea galduta ez sentitzea eta beharrezkoak dituen baliabideak erraztasun handiz aurkitzea gure orrialdean. Beharrezkoak izango dituen azalpen teorikoak eskura izatea ariketak egiteko orduan. Horregatik, behar-beharrezkoa da plataformaren diseinua eraginkorra eta argia izatea.